

Hautagaiaren izena: IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA

2023 Lekuona Sarirako hautagaitza babesteko gutuna.

Gasteizen, 2023ko irailaren 15ean

Ondorengo lerroetan Eusko Ikaskuntzaren 2023. Manuel Lekuona Sarirako IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA proposatzeko arrazoiak labur azalduko ditugu.

Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arribak euskararen eta hizkuntza gutxituen erabilera sustatzeko lanean jardun du eta oraindik ere horretan dihardu, soziolinguista adituaren ikuspegitik datuak aztertuz eta euskararen aldeko diskurtsoak berrituz, hala herri-mugimenduetan nola erakundeetan, hala akademian nola aktibismoan, hala Euskal Herrian nola nazioartean, beti Arabatik.

Gasteizen jaio (1950) eta, maisutza industrialeko ikasketekin, industria-teknikari gisa hasi zuen ibilbide profesionala (1969-1976), hainbat lantegitan. 1981ean Soziologiako lizentzia eta 1990ean Soziologiako doktoretza lortu zituen Deustuko Unibertsitatean. 1982tik 1986ra Eusko Jaurlaritzako Estatistika Zerbitzuko teknikaria izan zen lanbidez, eta 1986tik 2015era Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduraduna. Aldi berean, 1989tik 2015era, UPV/EHUko irakasle asoziatu gisa ere lan egin zuen, ibilbide profesionala eta unibertsitate-irakaskuntza bateratuz. Eusko Ikaskuntzako kide gisa, Auñamendi Eusko Entziklopediaren zuzendaria izan zen 2007-2013 bitartean.

1990eko hamarkadatik gaur arte, hainbat ikerketa-lanetan parte hartu du (2000. urtetik aurrera, gehienetan zuzendari gisa): *El euskara en la configuración de la identidad social en el País Vasco* (1994. UPV/EHU - Eusko Jaurlaritza), *Gizarte sareen metogologiaren moldaketa saio bat Euskal Herriko hizkuntza soziologiarako* (1994-1995. UPV/EHU), *Gazte*

donostiarren hizkuntzekiko harremanak (1995. Donostiako Udala), *Etorkizuna Aurreikusten: Gaztetxoak eta euskara* (1998. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritza eta Akitania-Euskadi Fondoa. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundea eta Euskal Herriko Unibertsitatea), *Las redes sociales de los jóvenes euskaldunes: de la competencia lingüística al uso del euskera* (1998. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetza), *Bergarako Azterketa Soziolinguistikoa* (1999. Bergarako Udala), *Arrasateko bizindar etnolinguistikoaren azterketa konparatua* (2000. Arrasateko Udala), *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran* (2003-2006, Eusko Ikaskuntza), *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD egitasmoa, 2015, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza eta Euskararen Aholku Batzordea)*, *EAS Euskararen Adierazle Sistema* (2013-2017. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea / Office Public de la Langue Basque-Euskararen Erakunde Publikoa / Europar Batasunaren Interreg-POCTEFA), *ARRUE ikerlerroa* (2004-2022. Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila)... Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren babespean abiatu berri duen *Euskararen Biziberritzea Araban* proiektuak erakusten du oraindik lanean segitzen duela.

Ikerketa-lan horietako gehienei lotuta, dozenaka kongresu eta jardunalditan parte hartu du, eta dozenaka artikulu eta liburu-atal argitaratu ditu hala euskal aldizkarietan (*Inguruak, Bat Soziolinguistika aldizkaria, Jakin, Hermes, Euskera*) eta euskal argitaldrietan (Eusko Jaurlaritza, Eusko Ikaskuntza, UPV/EHU, UEU, Mendebaldea Alkartea), nola nazioarteko argitalpenetan (*International journal of the sociology of language, Language, culture and curriculum, Metodología de encuestas, Handbook of Language and Ethnic Identity, European Journal of Applied Linguistics, Europäisches Journal für Minderheitenfragen, Treballs de Sociolingüística Catalana, Linguistic Minorities in Europe Online*).

Soziolinguistikaren alorrean, aitzindarietako bat izan da Euskal Herrian eta euskararen alorrean: Soziolinguistika Klusterraren sortzaileetako bat izan zen eta lehenengo lehendakaria (2000-2004), eta Bat Soziolinguistika aldizkariko zuzendaria (2012-2022); lehenago, Inguruak soziologia aldizkariko argitalpen batzordeko kidea izan zen (2001-2010). Soziolinguistikako aditu gisa, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak gidatutako

Topalabea taldeko kidea da sorreratik (2015-), eta Eusko Ikaskuntzaren mendeurreneko XVIII. Gero Elkar-Ekin Kongresuan e5 ekimenean, talde eragileko kidea (2018) izan zen.

Unibertsitate-irakaskuntzarekin lotuta, Iñaki Martínez de Luna izan da euskal soziolinguistikaren alorreko graduondoko nagusien sortzailea eta zuzendaria: Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioaren eta UPV/EHUren Hizkuntza Plangintza (Hiznet) graduondokoaren sortzailea, zuzendaria eta irakaslea (2001-2015 bitartean), eta Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioaren LINGUANET Enpresetako Hizkuntza Plangintza ikastaroaren sortzaile eta zuzendaria (2004-2008 bitartean).

Gainera, Euskal Herriko eta euskararen inguruko esperientziatik abiatuta munduko hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak bultzatzeko lanean, Garabide elkarteko Kontseilu Nagusiko kide da 2017tik, eta Gobernuz Kanpoko Erakunde horretako lehendakaria 2019tik. Ildo horretan, Garabidek sortutako Ikastaldia, HIBIL eta Aditu ikastaroetako irakaslea izan da (2018, 2019, 2020, 2022 eta 2023 urteetan).

Soziolinguistikako aditu moduan, aholkularitza lana egiten du hainbat erakunde publikotan: Arabako Foru Aldundiko Euskara Aholku Batzordeko kide da (2008-), Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoan aholkulari-batzordekide gisa parte hartzen du (2012-), EAEko Euskara Aholku Batzordeko kide da (2013-). Lan zehatzagoetan, 2013. urtean, EAEko Euskara Aholku Batzordearen baitako Euskara 21 Batzorde-atal bereziko zuzendari izendatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, zehazki honako hiru egitasmo hauen zuzendaritza teknikoa bere gain hartuz (2013 - 2017): batetik, Euskara Sustatzeko Ekintza Planeko (ESEP) euskararen diagnostikoa ikuspegi kualitatibotik sakonduz osatzea; bestetik, Euskararen Adierazle Sistemaren (EAS) diseinua finkatu eta egituratzea; eta, hirugarrenik, Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berri eta bateratze bidean jartzea (EGOD). Alabaina, ESEP Berritzeko Batzorde-atalaren zuzendari lanean ari da 2022ko apirilean hartarako izendatua izan zenetik. Eta, halaber, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua eta Donostia 2016 Fundazioaren Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa osatzeko Batzorde Zientifikoko kidea izan da (2016).

Aditu lanarekin batera, euskararen biziberritzearen aldeko aktibismoan ere parte hartu du. Besteak beste, Gasteizko GEU euskara elkarteko kide da eta elkarteko lehendakaria izan zen 2013-2015 urteetan. Alde horretatik azpimarratu behar da Arabako lurraldearekin eta Araban euskararen erabilera sustatzearekin izan duen konpromisoa.

Orain arte aipaturiko guztiak beti Arabako errealitatetik garatzeaz gain, esanguratsua da Iñaki Martínez de Luna *Euskararen Biziberritzea Araban (2023-)* Euskaltzaindiko proiektuaren bultzatzaile eta koordinatzailea izatea; egitasmo hori Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren babespean abiatu du, izan ere euskaltzain urgazlea baita 2015etik, eta Euskaltzaindiko Sustapen Batzordeko kidea 2017tik; eta argi erakusten du batetik oraindik gaur ere lanean segitzeko konpromisoa, eta bestetik lan hori Euskal Herriko lurralde periferiko batean zentratzeko erabakia.

Laburbilduz, Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arribak, euskararen eremuan hezurmamitu duen ibilbidearen argitan erakutsi duenez, uztarri berean loturiko ezaugarri bereizezinak ditu ikerkuntza, zabalkundea eta ekintzailtza. Euskalgintza osoa —dela euskalgintza soziala, dela euskalgintza instituzionala— baliatu da Iñaki ikertzailearen fintasun metodologikoaz, Iñaki dibulgatzailearen zorrotzasunaz eta Iñaki ekintzailearen konpromisoaz, beti ere euskararen sustapen sozialaren aldeko jardunaren eraginkortasunaren mesedean. Iñaki Martínez de Lunak soziolinguistikaren esparruan egin dituen modu bateko edo besteko ekarpen ugarienez gizartean eragina duten askotariko eragileak baliatu ahal izan dira, besteak beste, ikasle eta irakasle unibertsitarioak, ehundaka euskara teknikari, iritzi *publikatuaren* sortzaileak, hainbat eremutako profesionalak (hezkuntza, hedabideak, arlo sozioekonomikoa...), herri ordezkari eta agintariak, askotariko euskaltzale aktiboak, eta abar.

Aurreko paragrafoetan azaldutako arrazoiak behar bezala egiaztatzeko eta zabalkundea errazteko, hautagaiaren inguruko ondoko fitxategiak erantsita bidali dira aurkezpen gutun honekin batera:

- Inprimakia edo formularioa osaturik
- Curriculum Vitae

- Hautagaiaren argazkia(k), erabiltzeko baimena dutelarik (*erabilera eskubideak balute, aldez aurretik adieraziko da)


IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBAREN berezko ezaugarriak eta ibilbideak Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Sariaren helburuekin bat egiten dutelarik, bere hautagaitza babesten eta izenpetzen dugu.

Ondoko eranskinean zerrendatuta dauden erakundeek eta norbanakoek ere bat egiten dute IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBAREN hautagaitzarekin, eta haien babesak adierazten dute aurkezpen gutunari atxikitako ekarpenetan.


Sinatzaileak:




Ramiro González Vicente
Arabako diputatu nagusia




Jone Berriozabal Bóveda
Berdintasun, Euskara eta Gobernantza
Saileko foru diputatua




Lexuri Ugarte Aretxaga
Arabako Foru Aldundiko Euskararen eta
Gobernu Irekiaren zuzendaria



Patxi Bazterrika Galparsoro
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako
sailburuorde ohia



Kike Amonarriz Gorria
Euskaltzaleen Topagunearen
lehendakaria



Gidor Bilbao Telletxea
UPV/EHUko Euskara eta Cleanitzasunezko
errektoreorde ohia



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

2023ko deialdia Inprimaki arautua

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

EUSKO IKASKUNTZAREN MANUEL LEKUONA SARIA

3. Proposamenaren arrazoiak

3.1. Hautagaia aurkezteko arrazoiak (bere ibilbidea, euskal kulturarekin konpromiso eta ekarpen nagusiak, dibulgazio lanak, eremu akademikotik kanpo duen eskarmentua...)

INPRIMAKO HONEKIN BATERA BIDALI BEHAR DEN DOKUMENTAZIOA:

- ✓ Aurkezpen eskutitza
- ✓ Curriculum Vitae
- ✓ Hautagaiaren argazkia
- ✓ Beste (egon ezker)

Tokia, data eta sinadura

OHAR GARRANTZITSUA. Norberaren datuak babesteko indarrean dagoen legeria betez, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten dizu bilduriko norberaren datuek tratamendu informatizatua izango dutela sariaren helburua kudeatzeko. Orobat, Eusko Ikaskuntzak jakinarazten du sartzeko, zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituela fitxategiaren arduradunaren aurrean, dela posta elektronikoaren bidez ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus, dela posta arruntaren bidez, erakundearen helbidean: EI/SEV Norberaren Datuen Arduraduna, Miramar Jauregia, Miraconcha 48, 20007 Donostia.

AURKEZPEN GUTUNAREN ERANSKINA

Ondoko erakundeek eta norbanakoek ere bat egiten dute IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBAren hautagaitzarekin, eta haien babes adierazten dute aurkezpen gutunari atxikitako ekarpenetan.

Herri administrazioak

Hizkuntza Politika Sailburuordetza. Hizkuntza, Ikerketa eta Koordinazioko Zuzendaritza

Arabako Foru Aldundia. Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Gasteizko Udala. Euskara Zerbitzua

Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua

EHUko Gabriel Aresti Katedra

ISEI-IVEI (Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea)

Erakundeak eta elkarteak

Soziolinguistika Klusterra

Garabide Elkartea

Euskaltzaindia

Euskaltzaleen Topagunea

BAT Soziolinguistika Aldizkaria

UEU-Udako Euskal Unibertsitatea

GEU Elkartea

Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L.

Tokikom SL Zero kilometroko komunikazioa

Mintzalasai Elkartea

Jakin aldizkaria

Lazarraga Elkartea

Higa- Hizkuntza Gutxietako Hitzun Gazteen Topaketa

2023ko Manuel Lekuona Sarirako
IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA jaunaren
hautagaitza babesteko gutuna

Gutun honen bidez, Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona Sarirako Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba jauna hautagai izatea egoki jotzen dudala, eta hortaz, Arabako Foru Aldundiak aurkeztu duen hautagaitzarekin bat egiten dudala agertu nahi dut.

Iñaki Martinez de Luna jaunak hautagai izateko hainbat merezimendu ditu, eta Hizkuntza Politikari egin dizkion ekarpen hauek azpimarratu nahi nituzke:

- Soziolinguistika arloko ikerketaren oinarri teorikoak eta irakurketa zientifikoak eskaini dizkigu. Ezinbesteko erreferentzia izan da gure ikerketa zerbitzuko edukietan nahiz Euskararen Aholku Batzordeko edukietan sakondu eta erabakiak hartzeko.
- Aholkulari eta zuzendari gisa eskaini dizkigu bere ezağutza eta eskarmentua Hizkuntza Politika Sailburuordetzan. Honakoak nabarmenduko nituzke: EAEko Euskara Aholku Batzordeko kide gisa izan duen parte hartze emankorra (2013tik gaur arte); Euskara 21 Batzorde-atal bereziko zuzendari modura egin zuen ikerketa esanguratsua (2013-2017); Euskararen Adierazle Sistema osatzeko garaian egin zituen zuzendaritza lanetatik sortutako eduki berriak (2013-2017); ESEP Berritzeko Batzorde-atal bereziko zuzendari gisa ematen digun babesa eta berrikuntzaren alde egin duen ekarpen emankorra (2022tik gaur arte).

Iñaki Martinez de Luna euskaltzale eta euskalari saiatua eta ekintzailea izan da eta bada, euskal soziolinguistikaren sorburuetako kideetako bat; erreferentea, inondik ere. Arabako biakabide soziolinguistikoaren bidelagun fin eta zorrotza, eta euskararen eremu osoari ikuspegi horretatik ekarpena egin dion pertsona. Lekuona Saria jasotzeko hautagai guztiz egokia.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 15ean.

JOSUNE
ZABALA
ALBERDI
35778771V

Digitally signed
by JOSUNE
ZABALA ALBERDI
35778771V
Date: 2023.09.15
11:15:10 +02'00'

Josune Zabala Alberdi
Hizkuntza Ikerketa eta Koordinazio zuzendaria Hizkuntza Politika Sailburuordetzan.
Eusko Jaurlaritza.

Jaun/Andre agurgarria:

Honako gutun honen bidez, Iñaki Martínez de Luna jaunak Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoari egin dion ekarpenaren berri eman nahi da.

Inkesta Soziolinguistikoa Euskal Herri osoan egiten den eragiketa estatistikoa da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Iparraldean. Inkesta Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Inkesta Soziolinguistikoak 16 urte edo gehiago biztanleen euskararen ezagutza, hizkuntzaren transmisioa, erabilera eta euskara sustatzeari buruzko jarrera aztertzen ditu bost urtean behin. Ibilbide luzeko eragiketa estatistikoa da. Izan ere, lehenengoa 1991n egin zen eta orain arteko azkena, zazpigarrena, 2021ean. Horrek aukera ematen digu euskararen unean uneko egoera eta azken hamarkadako bilakaera ezagutzeko.

Iñaki Martínez de Luna jaunak Inkesta Soziolinguistikoaren haztapenean parte hartu zuen. Izan ere, lehenengo inkestaren emaitzak balioesteko, 1992an R. Bohurhis doktorearen zuzendaritzapena egin zen adituen mintegian parte hartu zuen. Mintegi horretan ateratako ondorioak ezinbestekoak izan ziren Inkesta Soziolinguistikoak azken 30 urteotan egin duen bidea zehazteko.

JON AIZPURUA ESPIN

Plangintza eta Azterlanetako arduraduna
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Andere eta jaun agurgarriak:

Arabako Foru Aldundiak 2008an jarri zuen abian bigarren aldiz Euskararen Foru Zerbitzua, bi pertsonaz osatutako zerbitzu apala zeinak euskararen sustapen lerroak Araban zabaltzea zuen xede. Funtsean ordea zerbitzuaren eskura dirulaguntza lerroak zeuden, zerbitzuak bestelako norabide berria behar bazuen ere, eta horretan egituratu beharra zuen.

Hastapena ez zen erraza izan, eta hasierako antsietatea albo batera utzita zerbaitetan asmatu bagenuen Iñaki Martinez de Lunarengana jotzean izan zen. Harrezkero, ez dugu lankidetzat hori galdu, aitzitik, aragotu egin da urtez urte, iritzi eta aholku emaille zintzo gisa.

Bidea jorratzen ari ginen hartan, kasu egin genion Iñakiren lehen aholkuari, alegia, Arabako egoera soziolinguistikoa zein zen jakitea zegoigun, zein arnagunea geneuzkan, zein elkarte edo eragile kontuan har genezakeen, lurraldeko administrazioetan zein zen indar teknikoa... Ondotik Iñakiren bigarren aholkua etorri zen lehenengo plan estrategikoa abian jar genezan, eta jarri genuen, Euskara Batzorde eraberritu batekin gainera. Esan beharrik ez dago geroztik, Iñakik parte hartu eta hartzen duela gure zerbitzuari modu apalean proposamenak eta iritziak ematen, ezagutza zabaltzen, ikuspegi orokorra irudikatzen.

Hamabost urte igaro dira eta denetarik izan dugu, norabidez aldatu beharra ere bai, noizbait, edo zalantzak, fokua eta antiojoak erantzi, garbitu eta jantzi berriz ere; plan estrategikoa burutzea bezain garrantzizkoa zela ebaluatzea zioen, Arabatik Arabarako mezu egokituaren premiaz oharu gintuen, premia genuela *framinga*, alegia, lurraldeko komunitatea komunikatu beharra zegoela, euskaldunari ez bezala erdal komunitateari hala komeni zenetan; komunikazioaren termino purua txertatu zuen hizkuntza normalizazioan genbiltzanon besoetan ez baizik burmuinean, geroztik zortzi Kuadrilletako teknikarien egitekoan hor dabil dantzan oraindik ere *framinga*, bidaide ezinbesteko batzuetan, nahi baino ezinezko besteetan.

Langile nekaezina, aditua eta komunikatzaile fina, pazientzia handikoa, pertsonak batzen dakiena, kontsentsua du helburu, entzule aparta, umorea ere galtzen ez duena, aurrera begirako proposamenak luzatzeko gai izan dena.

Apaltasun osoz hitzun berriak zentroan jartzeko ahotssetako bat izan da, Araba eta Gasteiz periferian baino askozaz erdirago daudela erakutsiz; arabar euskal hiztunak, Gasteiz hiritik, bereziki, Euskal Herrira zabalduz, eta "periferiatik zentroa" hitz egiten duenak zentroa ere periferiarantz mugitzen ari dela aldarrikatzen du.

Beste lurraldeekikoa ederki kudeatu du, periferian bizi garenekoa edo zazpigarren alaba garaia bezalako mezuak antzu uzteko abilezia erakutsiz, ezinbesteko bihurtu baitu hitzunen ezaugarriak eta bilakaera ezagutzea konparazioak baleko izan daitezkeen, nor bere tokian uzteko. Premia honi ere erreparatu zion nekaezina den Iñakik, eta helburu horrekin EAS (Euskararen Adierazle Sistema) euskararen egoera eta bilakaera ezagut dezakegu modu sakonean, beste herriekin konparagarri izan gaitezen; EAS proiektuan HPSrekin batera zuzendari lanak garatu zituen gaur egun arte.

Eskuzabala oso, ematekoa, hala, Araban oso ezaguna da Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba, arabar petoa bere abizenek horrela erakutsia eta euskaltzalea ez ezik euskaltzain urgazle duguna. Hitzaldi, mahai-inguru eta prozesu parte hartzaile ugarietan; deituko eta joango da, laguntza eskatu, eta joango da Iñaki laguntzera, beti ere datuak eskuan, tokian tokikoak gainera, pertinateak oso beti, hitzuna eta pertsona zentroan, ezer hautsi beharrean batzen ahalegindu dena; handikeriarik gabe, apal baina serio, oinarri sendoarekin, erantzuna eta konponbidea ezagutzen duenak egin ohi duen moduan.

Euskararen normalizazioan aurrera egiteko ezinbesteko ikusi zuen aspaldi herrigintzaren ekarpena handia zela, baina ulertzen zuen esku-hartzeak metodologia baten barruan egin behar zirela, diagnostikoak bezain garrantzizkoak zirela ebaluazioaldiak. Horrela, herrigintzaren ekarpenen premia zuten instituzioentzat ere lan egiteko metodologia ekarri die, izan ere, metodologian aditu gisa ezagutza handitzeko estrategia berriak bilatu ditu, estatistikaren garrantzia eztabaidaz kanpokoak da berarentzat, datu eta lagin berrien bitartez hipotesi berriak ekarriko ditu eta.

Aldundian eta udaletan, elkarteetan eta erakunde publikoetan, Araban egin duen lana uka ezina da; berdin, euskara elkarteetan, ikastetxeetako guraso elkarteetan, zein une eta garai zailetan agintari politikoei ere hizkuntza-politikaz azalpenak eta oharrak ematera hurbiltzen zenean, pedagogia praktikoa zerabilen, izan ere, hartzaileari zer komeni zitzaien entzutea eta ikastea inork baino hobeto asmatzen jakin du.

Arrazoinamendu osoan ekarpena egin dio euskararen biziberritze prozesuari Arabako errealitatearen begietatik. Jakin du Arabako errealitatea irakurtzen eta sustatzen; eta gainerakoak ulertu eta saretzen. Iñakirekin eta Iñaki bezalako beste batzuekin batera, lurralde honetan euskararekiko atxikimenduak gorantz egin du etengabe azken urteotan eta lan eskergea hau eskertzekoa da.

Manuel Lekuona sarirako aipatzen diren balioespen-irizpideak kontuan hartzen badira, ez dugu zalantzarik egiten Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arribak behar besteko merezimenduak dituela eta horregatik biziki gomendatzen dugu bere izeria 2023ko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jasotzeko

Kontuan hartuko duzuelakoan, adeitasunez,

Jokin Larrañaga Larrañaga
Euskararen Foru Zerbitziburua
Arabako Foru Aldundia

Gasteizen 2023ko irailaren 15ean

Andere eta jaun agurgarriak:

Gasteizko Udalak 2005ean jarri zuen abian Gasteizen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Horrez geroztik izen ezberdinak izan baditu ere, lau planifikazio ezagutu ditugu. Horiek, hasiera-hasieratik, eragile sozialen parte-hartzearen bidez eraiki nahi izan dira, baina, ahal zen neurrian, zehaztasun eta zorrotzasun teknikorik galdu gabe. Iñaki Martinez de Lunak horretan lagundu digu behin baino gehiagotan: testuak irakurri, zuzendu, iradokizunak egin eta, are garrantzitsuagoa dena, aurrera egiteko adorea eman. Den-dena, eskuzabaltasunez eta era desinteresatuan. Nekez eskertu ahal da hark emandako laguntza eta babes guztia.

Harrigarria da Iñaki Martinez de Luna lan egiteko duen gaitasuna: unibertsitateko irakasle gisa ezagutu dugu, HPSko aholkulari, Euskararen Aholku Batzordeko kide, GEU elkarteko lehendakari, ikerlari, iritzi-emaile, hizlari, Garabide elkarteko lehendakari, euskaltzain, Soziolinguistika Klusterreko kide... Langile nekaezina dugu, eskuzabala, umore onekoa, pazientzia handikoa eta, beste ezeren gainetik, euskaltzale fina.

Euskalgintza sozialaren eta euskalgintza instituzionalaren ideia ez da berea. Oker ez banago Mikel Zalbideri entzun genion lehendabiziko aldiz; baina esango nuke berak defendatu izan duela inork baino hobeto. Gaur egun administrazioak eta euskararen gizarte mugimenduak elkarrekin jarduteko gogoia eta giroa baldin badago, hari zor diogu neurri handi batean. Zubigile aparta izan da.

Kike Amonarrizek behin Gasteizen eman zuen hitzaldi batean esan zuen bezala: "ez da egongo ziurrenik European hizkuntza bat halako tamainan biziberritu duen beste hiririk". Eta halaxe da, errealitate hori oso gutxi ezagutzen bada ere. Iñaki Martinez de Lunak horretan ere lan aparta egin du: Gasteiz eta Arabako egoera soziolinguistikoaren berri zabaldu du han eta hemen. Soziolinguistika Klusterrak euskararen kale erabileraren neurketa egin duen bakoitzean, haren testuetara jo izan dugu, jakin-minez, Gasteizko eta Arabako errealitateaz nolako irakurketa egin behar genuen jakiteko. Euskaltzaindiak Arabako egoera soziolinguistikoari buruz antolatu dituen bi jardunaldi ditugu gogoan: *Arabatik Arabara euskaraz*, 2011.urtean eta *Araba, euskaraz bidea egiten*, 2017an. Bietan Iñaki Martinez de Lunak jardun du, hizlari edo/eta antolatzaile. Arabako enbaxadore-papera hartu du hainbat arlotan.

Hizkuntza politiken ebaluazioaz ere arduratu izan da. Euskarari buruzko adierazle sistemetan aditua da: EAS (Euskararen Adierazle Sistema) lantzeko aholkularia izan da eta ARRUE ikerketaren arduraduna. Kalitate tekniko handiko lanak dira, biak ala biak.

Luze joko luke bere lan-lerro guztiak zerrendatzea, baina ez dugu amaitu nahi euskararen gaineko diskurtsoez egin dituen lanak aipatu gabe: marko teoriko bat proposatu du arlo diskurtsiboaren garrantzia azpimarratzen duena; gizartean euskararen inguruan dauden diskurtsoak xehe-xehe aztertu ditu; eta hainbat proposamen egin ditu gaia aurrerantzean lantzeko. Lan aparta eta berritzailea.

Manuel Lekuona sarirako aipatzen diren balioespen-irizpideak kontuan hartzen badira, ez dugu zalantzarik egiten Iñaki Martinez de Luna Perez de Arribak behar besteko merezimenduak

dituela eta horregatik biziki gomendatzen dugu bere izena 2023ko Eusko Ikaskuntzaren
Manuel Lekuona Saria jasotzeko

Kontuan hartuko duzuelakoan, adeitasunez,

Rakel Romero
Euskara Zerbitzuko burua
Gasteizko Udala

2023ko Manuel Lekuona Sarirako
IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA jaunaren
hautagaitza babesteko gutuna

Gutun honen bidez, Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona Sarirako Iñaki Martinez de Luna Perez de Arriba jauna hautagai izatea egoki jotzen dudala, eta hortaz, Arabako Foru Aldundiak aurkeztu duen hautagaitzarekin bat egiten dudala agertu nahi dut.

Iñaki Martinez de Luna jaunak hautagai izateko hainbat merezimendu ditu eta nik hauek nabarmendu nahiko nituzke:

Soziolinguistikan ikertu dugunondako erreferentzia ezinbestekoa izan da Iñaki Martinez de Luna. Izan ere, Soziolinguistika ez da Euskal Herriko unibertsitateetako ikasketa planetan ikusgarritasuna izan duen jakintza arloa eta Martinez de Luna, EHUko Soziologia Siletik, hizkuntzaren soziologia eta hizkuntza gutxituen soziolinguistika jorratu ditu hainbat hamarkadatan, euskarak gizartean duen egoera hobetzen ahaleginetan ibili garenondako ikerlan ernagarriak plazaratzen.

Bestalde, Soziolinguistikan prestakuntza akademikorako zegoen gabezia betetzeko ezinbestekoa izan da Martinez de Luna. Horren erakusgarri, 2001ean Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak eta EHUK abiatu zuten HIZNET Hizkuntza Plangintza graduondokoa. Martinez de Luna ikastaro horren bulkatzailea izan zen, bai eta zuzendari aritu ere hainbat ikasturtez.

Soziolinguistika Klusterraren ohiko jardun eta foroetan egin dut nik bat Iñaki Martinez de Lunarekin azken urteotan, bai *Bat Soziolinguistika Aldizkariaren* argitalpen batzordean; bai Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren batzorde zientifikoan. Batean zein bertzean, Martinez de Lunak beti ekarpen zorrotzak eta mamitsuak, eta beti zehaztasun zientifiko handikoak, egin ditu.

Iñaki Martinez de Luna euskaltzale eta euskalari saiatua eta ekintzailea izan da eta bada, eta, nire irudikoz, Lekuona Saria jasotzeko hautagai guztiz egokia.

Iruñean, 2023ko irailak 13.

Paula Kasares
Soziolinguistikan doktorea eta
Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuko Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren
Zerbitzuko zuzendaria

Hautagaiaren izena: IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PEREZ DE ARRIBA

2023 Lekuona hautagaitza babesteko gutuna

Bilbon, 2023ko irailaren 13an

Ondorengo testuan ISEI-IVEIren izenean Manuel Lekuona Sarirako IÑAKI MARTINEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA proposatzeko arrazoiak labur azaltzen dira:

ISEI-IVEI erakundeak hainbat proiektutan Soziolinguistika klusterrarekin batera zuzeneko partaidetza izan du, ARRUE proiektuan bereziki, eta lan-saio horietan aukera eduki du Iñaki Martinez de Lunarekin kolaboratzeko.

ARRUE proiektua 2003-2004 ikasturtean abiarazi zen, eta aurrerantzean ikasturte guztietan indarrean jarraitu du. ISEI-IVEIek 2010-2011 ikasturtetik aurrera, Soziolinguistika Klusterrarekin batera zeregin horretan parte hartu du. Proiektuan ikasleen hizkuntza-erabilera eskola barruan eta eskola inguruan ikertzeko lau erabilera aztertu dira: ikaskideen artekoa gelan, ikaskideekin jolaslekuan, irakasleekin gelan eta irakasleekin gelatik kanpo. Horretaz gain, ikasleen erabilera beste testuingururen batean ere aztertu dituzte: familian, aisialdian, etab.

Aipatutako lanean, Martinez de Lunaren partetik jasotako tratua hurbila izan da, lankide moduan kolaboratzaile oso fina eta langile porrokatua izanik. Bestalde, aipagarria da lanarekiko erakutsi duen dedikazioa eta pasioa, atazak doitasunez eta zehaztasunez egin baititu etengabe. Gainera, Iñaki Martinez de Lunaren proposamenak oso berritzaileak eta funtsezkoak izan dira beti, eta inguruko lankideok hark egindako ekarpenekin asko ikasi dugu.

Martinez de Luna euskararen alde aritu da beti, eta, bai soziolinguistikaren jakintzagaiaren ikuspegitik baita bere konpromiso pertsonaletik ere, euskara sustatzea izan du helburu garbia.

Esandako guztia kontuan izanik, guztiz aproposa ikusten dugu Iñaki Martinez de Lunaren hautagaitza *Manuel Lekuona Sarirako*, eta, ISEI-IVEIko langileen babesa jasota gera dadin, denon izenean hala sinatzen dut.

Sinatzailea:

**EDUARDO
UBIETA
MUÑUZURI -
14948546H**

Digitalki sinatuta
norengeandik: EDUARDO
UBIETA MUÑUZURI -
14948546H
Data: 2023.09.13
14:35:40 +02'00'

Eduardo Ubieta Muñuzuri, ISEI-IVEIko zuzendaria

Hautagaiaren izena: IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA
2023 Lekuona Sarirako hautagaitza babesteko gutuna.

Markina-Xemeinen 2023-9-8, Arrateko Andre Mari eguna

Sari hau jasotzeko pertsona aproposa dela uste dut hainbat merezimendu dituelako.

90eko hamarkadan zehar, eta bereziki 2000ko hamarkadaren hasieran, euskal soziolinguistika bide berriak urratzen eta indartzen hasi zen. Ordutik, euskal soziolinguistikaren baitan lanean aritzen diren erakunde, irakasle eta ikerlarien kopurua handitu egin da, ikerketak ugartu eta, ondorioz, diziplina hau aberastu, osatu eta indartu egin da.

Euskal soziolinguistikaren bilakaera hau posible egin duen ezinbesteko eragileetako bat izan da Iñaki Martínez de Luna. Gehiago esango dut, Euskal Herrian egin diren ikerketa soziolinguistiko aplikatuen kalitate metodologiko-teknikoa asko hobetu da, besteak beste, Iñakik hainbat ikerketetan izandako lidergoari esker. Ikerketarako izan duen senak euskal soziolinguistikak inoiz izan duen mailarik gorenera eramaten lagundu du.

Iñaki Martínez de Luna Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioak eta UPV/EHU-k elkarlanean 2001ean sortu zuten Hiznet Hizkuntza Plangintza graduondokoaren zuzendari eta bultzatzaile izan zen, hain zuzen ere, 2014-2015 ikasturtera arte gidatu zuen graduondokoa.

Graduondo honi esker, hainbat pertsona trebatu dira soziolinguistikaren eta, zehazki, euskal soziolinguistikaren alorrean. Datu bat emateagatik, 2001-2002 ikasturtetik 2020-2021 ikasturtera, 860 ikaslek parte hartu zuten graduondokoan. Inolako zalantzarik gabe, Hiznet soziolinguistikaren alorra sendotzeko ezinbesteko tresna izan da.

Unibertsitatean izan duen eragina ere azpimarratu nahiko nuke. Irakasle bikaina izateaz gain (1989tik 2015era izan zen UPV-EHUko irakasle), soziolinguistikan aditu diren ikerlariak trebatzen ere parte hartu du. Hainbat merezimenduren artean zera aipatu nahi nuke, nirekin batera, Iñaki Iurrebasoren tesi zuzendaria izan zela (Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolinguistikazko tresna metodologikoak garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa). Tesiak Bikain Cum Laude nota jaso zuen epaimahaiaren aldetik.

Unibertsitatean ez ezik, Euskaltzaindiako Jagon saileko Sustapen Batzordean ere bat egin dut Iñaki Martínez de Lunarekin. Eta hemen ere lanerako gogoia eta egitasmoak aurrera ateratzeko nahia erakutsi du.

Hainbat egitasmo eta esparrutan ezagutu dut Iñaki Martínez de Luna. Eta beti erakutsi dit euskararen aldeko ekintzailea dela. Euskararen aldeko langile porrokatua, ikerlaria, egitasmoen bultzatzailea... inolako zalantzarik gabe Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arribak 2023 Lekuona Saria jasotzeko merezimenduak ditu.

Patxi Juaristi Larrinaga

UPV/EHUko irakaslea, Jakin Aldizkariko Kontseilu Editorialeko kidea eta UPV/EHU-ko Gabriel Aresti Katedrako zuzendaria

Andoain, 2023ko irailaren 5ean

Andere eta jaun agurgarriak:

Soziolinguistika Klusterraren izenean izen handiko sari honetara IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA hautagaia gomendatu nahi genuke, uste baitugu ondo baino hobeto betetzen dituela saria emateko ezarri diren baldintzak. Arabako Foru Aldundiak sustatutako hautagaitzari babesa adierazi nahi dio Soziolinguistika Klusterrak gutun honen bidez.

Lehenik eta behin, ibilbide luzeko ikertzailea da soziolinguistikaren esparruan. Berrogei urteko tartean askotariko ikerketak egin ditu, batzuk lokalak edo espezifikoak, eta baita Euskal Herri osokoak eta munta handikoak, euskal nortasunaz eta kulturaz (Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Ikaskuntzarekin), ikasleen hizkuntza erabileraz (ARRUE ikerlerroa), euskararen gaineko diskurtsoez (EGOD izenekoa) edota euskararen egoeraren adierazleez (EAS delako tresna eman duena)

Aipagarria da ikerketa hauen helburu komuna: euskararen biziberritze prozesuaren ezagutza zientifikoa sakontzea, prozesuaren eraginkortasuna areagotzeko. Ezaugarri honek bihurtu du hautagaia erreferentziazko aditu Euskal Herriko lurralde guztietan.

Hala ere, ikerkuntzan egindako lan mardularen parekoa da herrigintzan eman duen ahalegina, berdin bizileku duen Gasteizko euskara elkartearen edo Eusko Ikaskuntzan, Euskaltzaindian, Euskal Herriko Unibertsitatean, Garabiden edota Soziolinguistika Klusterrean. Bera izan zen gure ikergunearen sustatzaile eta sortzaileetako bat, baita lehen lehendakaria ere.

Eredugarria iruditzen zaigu gure hautagaiak nola uztartzen dituen bere jardueraren zientifikotasuna eta Euskal Herriaren garapenarekin konpromisoa. Bi ezaugarri horiek eraman dute bidegile izatera. Taldean lan egiteko joera eta horretarako doaiak dituenenez, ez da proiektu guztietan nabarmentzen bere ekarpen aitzindaria; bere curriculum luzea astiro irakurtzeak, ordea, argi erakusten du ekimen berritzaileak sustatzeko, esparru ezezagunak jorratzeko eta Euskal Herriko sareak josteko joera.

Bertute horiek gutxi ez, eta langile nekaezina da. Harrigarria da bera kide edo partaide duten erakundeen zerrenda, eta azpimarratzekoa nola uztartzen diren bertan erakunde akademikoak, administrazioak eta eragile sozialak. Gure hautagaiak bikain joratu du lankidetzaren giroa euskararen biziberritze prozesuaren askotariko partaideen artean.

Zinez pentsatzen dugu hautagaiaren merezimendu hauek bat datozela sariaren espirituarekin, eta horregatik biziki gomendatzen dugu bere izena 2023ko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria jasotzeko.

Adeitasunez,

Mertxe Mugika Balantzategi
Soziolinguistika Klusterraren lehendakaria

Aretxabaletan, 2023ko irailaren 14an

Garabide kultur elkartearen izenean, jakinarazi nahi dugu, Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba hautagai ezin egokiagoa ikusten dugula Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona Saria jasotzeko, eta horretarako Arabako Foru Aldundiak aurkeztu duen hautagaitzarekin bat egiten dugu gutun honen bidez.

Euskararen eta euskalgintzaren alde lan egin du azken hamarkada luzeetan, esparru bat baino gehiagotatik. Lan profesionalean hasi eta lanorduz kanpoko ahalegin pertsonalean buka, bizitzaren zati handi bat eskaini dio euskarari, ikerketan, sustapenean, kudeaketan eta aholkularitzan. Urte horietan guztietan jakin izan du uztartzen alde akademikoa, egitasmoen kudeaketa eta mugimendu sozialetan parte hartzea eta horrek eman dio, besteak beste, euskararen biziberritzearen inguruko ikuspegi hain zabala.

Euskararen esperientzia munduko beste hizkuntza komunitateei zabaltzeko garaian, hizkuntza lankidetzan egindakoen artean, Garabiden izan duen ibilbidea azpimarratu nahi genuke lerrootan. Garabideko Kontseilu Nagusiko kide da 2017tik eta Garabideko lehendakari 2019tik. Euskalgintzako hainbeste erakunde, talde eta esparrutan parte hartu duenez, ezin egokiagoa da euskararen biziberritzearen ikuspegia zabaltzeko. Garabideko euskararen esperientzia erakusteko Euskal Herrian egiten duen formazio saioetan (Aritu ikastaroa, Ikastaldia, HIBIL...) parte hartu du irakasle gisa 2018an, 2019an, 2020an, 2022an eta 2023an. Horrez gain, munduko hainbat hizkuntza komunitateri zuzenean lagundu die euren biziberritze prozesuetan, besteak beste, hizkuntza planak eta diagnostikoak diseinatzen. Garabideren izenean zuzenean ezagutu zituen 2021ean Boliviako ketxua eta guarani komunitateak. Ekuadorreko kitxuen biziberritze prozesuan, Cotacachi udalerriko hizkuntza planean parte hartze zuzena izan du, eta baita beste hainbat komunitateren prozesuetan ere. Horrez gain, munduko hizkuntzen egoera eta ikuspegia euskal gizartera ekartzeko ahalegina ere egin du, eta bere proposamenez antolatu da 2023an EHUko Udako Ikastaroetan *Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako?* ikastaroa.

Munduko hizkuntza gutxituen saretzearen ideia defendatzailea eta euskaltzale porrokatua, Arabako euskalgintzaren ikuspegia inoiz ahaztu gabe lan egiten duena. Garabideko lan taldea sendotzeko ardatz ezinbestekoa izan da, pertsona jantzia, zintzoa eta gertukoa izanik. Sekretuan mantentzen du egiten dituen lan guztietarako tartea nondik eta nola ateratzen duen.

Eta horregatik guztiagatik, Manuel Lekuona Saria jasotzeko biziki gomendatzen dugu Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arribaren hautagaitza, sari honen filosofiarekin eta ideiarekin bete betean bat egiten duelakoan.

Jon Sarasua Maritxalar
Garabideko lehendakariordea

Hautagaiaren izena: **Iñaki Martínez de Luna Pérez de Arriba**

2023 Lekuona Sarirako hautagaitza babesteko gutuna

Vitoria-Gasteizen, 2023ko irailaren 13an.

Erabateko adostasunez eta uste osoz babesten dut Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren ekimena, aurtengo Lekuona Sarira Iñaki Martínez de Lunaren hautagaitza aurkezteko dena. Zalantza gabe, goren mailako aitortza horren merezidun da, nire iritzian. Erreferentziazko soziolinguista dugu Iñaki Martínez de Luna, eta, oroz gain, euskaltzale arabar zintzo, konprometitu eta nekazina. Gainera, dohain horiek guztiak koherentziaren bertutearekin bilbatuta ditu, eta horrek isla du bere ibilbide emankorrean eta euskal gizarteari egindako ekarpen oparoan.

Mundu zabaleko hizkuntza gutxituekiko begirunea eta konpromisoa izan ditu beti ardatz eta akuilu bere lanean Iñaki Martínez de Lunak. Mugarik gabeko ikuspegi ireki horrekin uztartuta, aparteko dedikazio arretatsua eskaini dio euskarari, gure hizkuntzak gaintitu behar dituen erronkez eta baliatu behar dituen aukerez hausnarrean eta ekinean, euskararen biziraupena bermatzea helburu. Asko eta askotarikoak dira bere merezimenduak Lekuona Sari entzutetsua jasotzeko. Horren erakusgarri izan nahi du gutun labur honek, eta hala dira hautagaitzari sostengu emateko hainbat erakundetako ordezkarien gainerako gutunak.

Euskaltzaindian ere jarduten du Iñaki Martínez de Lunak euskara jagoteko eta sustatzeko ahaleginean, lanerako aukerarik galdu gabe. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 2015ean, eta handik bi urtera Akademiako Sustapen batzordeko kide aktibo bilakatu da. Hain zuzen, hortik bultzatu eta koordinatzen du Euskaltzaindiak aurtengo martxoan abian jarri berri duen egitasmoa, *Euskararen Biziberritzea Araban* (EBA) izena hartu duena. Euskal Herri osoan txertatua, ikuspegi globaletik aldendu gabe, «Arabaz, Arabatik eta arabarrentzat» sortua da proiektu hau. Xede du Araban euskara biziberritzeko ahaleginetan azken zazpi hamarkadetan egin den bidearen kontakizun dokumentatua osatzea, nagusiki belaunaldi berriei horren lekukotasuna emateko, eta horrela, era hezitzaile batean, gazteen -ez soilik, baina bai batez ere- euskararekiko atxikimendua eta konpromisoa areagotzen laguntzeko.

Honengatik guztiagatik, sinetsita nago Eusko Ikaskuntzak 1983an Lekuona Saria sortu zuen helburuarekin bat datorrela bete-betean Iñaki Martínez de Lunaren ekarpen garrantzitsua (*opera omnia*), eta gaur arte aitortza hori erdietsi duten pertsonen izen handiko taldean sartzeko ohorea ondo merezia duela.

Roberto González de Viñaspre

Euskaltzain osoa eta Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria.

Euskaltzaleen Topaguneko lehendakari gisa adierazi nahi dut guztiz egokia iruditzen zaigula Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona Saria Iñaki Martinez de Luna Perez de Arribari eskaintzea, eta bat egiten dugula Arabako Foru Aldundiak aurkeztu duen hautagaitzarekin.

Beste hainbat erakundetako ordezkariak azaldu duten bezala, Iñakik euskarari eta euskalgintzari egin dion ekarpena, zabala, aberatsa eta sakona izan da, bai alor akademikoan, bai egitasmoen eta erakundeen kudeaketan, eta baita euskalgintzan eta mugimendu sozialetan. Hausnartu eta teorizatu duen pertsona da Iñaki, teoria eta praktika uztartu dituena, eta jarduera akademikoa, kudeaketa lanekin batera garatu duena. Ikuspegi eta jarduera panoramiko horrek balio berezia ematen dio euskararen biziberritze-prozesuan egin duen ekarpenari.

Gure mugimenduan ere oso garrantzitsua izan da Iñakiren ekarpena. Gasteizko Geu elkartearen partaide aktibo izateaz gain, bertako lehendakari ere izan zen 2011tik 2015era bitartean. Araban, Gasteizen, Lautadan eta Ilarduian partehartze aktiboa izan du hainbat egitasmotan: hitzaldiak ematen, Alea Arabako herri-aldizkarian artikulua idazten, Inauterien antolaketan, Euskaraldian...

Iñaki funtsezko pieza izan da Euskaltzaleen Topagunearen ekimenez eta gerizpean sortutako Topalabe hausnarketa-taldean. Haren ekarpenak balio handikoak izan dira "*Berrikasi eta berrikusi*" eta "*Berrindartu eta jauzi*" txostenak idazterakoan, eta gizarteratzerakoan; taldearen bileretan esku hartzeaz gain, txostenen inguruko bileretan eta aurkezpenetan ere parte hartu baitzuen. Baina ez hori bakarrik, haren ezagutzak eta ikuspegiak partekatzeaz gain, taldearen bilerak egiteko haren etxearen ateak ere zabaltu zizkigun denbora luzez. Anekdotak gisa aipatuko dut, bertan biltzen ginenez, Topalabe izena jarri baino lehen, "*Ilarduia taldea*" deitzen geniola taldeari.

Iñakik, gainera, "arabar ikuspegi" erantsi izan die hausnarketa horiei, eta begiratu hori oso aberasgarria gertatu da, Arabaren errealitate eta dinamika soziolinguistikoaren ezaugarri bereziak ez baitira askotan behar bezala aintzat hartzen.

Urte hauetan guztietan, bestalde, Iñakik egindako eta zuzendutako ikerketak eta hausnarketak ezinbesteko erreferentzia izan dira gure erakundearentzat.

Honengatik guztiagatik uste dugu ondo merezia duela Iñaki Martinez de Lunak Eusko Ikaskuntzaren 2023. urteko Manuel Lekuona Saria.

KIKE AMONARRIZ GORRIA
TOPAGUNEA ELKARTEAREN LEHENDAKARIA

Iñaki Martínez de Luna BAT Soziolinguistika aldizkarian

Iñaki Martínez de Luna **BAT aldizkariaren zuzendari** izan da 2013tik 2022ra bitartean. Aldizkariarekin duen lotura, ordea, ez da urte horietako lanera mugatzen. Gogoratu behar da aldizkaria Euskal Kulturaren Batzarrak (EKB) sortu zuela 1990. urtean, Jose Luis Enparantza *Txillardegik*ren ekimenez eta haren zuzendaritzapean. Ia gara berean sartu zen Iñaki Martínez de Luna BATEko argitalpen batzordean (1995 urtean), aldizkaria Euskal Kulturaren Batzarrak argitaratzen zuen garaitan, eta bertan jarraitu zuen Euskal Soziolinguistika Instituturekin (SEI) eta 2004tik aurrera Soziolinguistika Klusterraren proiektu gisa. Ibilbide horretan, 2013. urtean zuzendaritza-kargua bete zuen hamar urtez, harik eta Estibalitz Amorrorturi lekukoa pasa zion arte, 2022. urtean.

Gogoratu behar da Bat Soziolinguistika Aldizkaria euskaraz argitaratzen den soziolinguistika esparruko aldizkari zientifikoa dela, eta bere helburua euskararen biziberritze-prozesuaren inguruko ezagutza zientifikoa hedatzea dela. Bertan, Iñaki Martínez de Lunak egindako ekarpena, bi ardatzen inguruan bil daiteke: alde batetik, euskararen berreskuratzean soziolinguistikaren ezagutzaren beharra aldarrikatu du eten gabe, horretarako ikerketa sustatuz. Izan ere, bere iritzian, intuizioa, eta saiakuntza- eta errakuntza-metodoa erabiltzea batzuetan beharrezkoa bada ere, ezagutza zientifikoa ezinbestekoa da. Horregatik, bere ekimenetako bigarren ardatz nagusia, teoria-mailan garatzen diren markoak hedatzea, dibulgatzea eta eragile guztien eskura jartzea.

Testuinguru horretan, 2008an **Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sariak** sortzeko proiektua abian jarri zuen, (gaur egun, Txillardegi-Hausnartu Sariak), hain zuzen, euskal soziolinguistikaren ikertzaile berrien lanak sustatu eta ezagutzera emateko.

Iñaki Martínez de Lunaren nahia izan da, era berean, soziolinguistika esparruan lanean ari diren ikertzaileak, unibertsitateko irakasle zein ikasle izan, eta euskararen berreskurapenean inplikaturik dauden agente guztiak elkar lotzea, baita Herri Administrazioako esparru desberdinetako teknikariak eta hizkuntza-politikako ardura publikoa duten guztiak ere. Bestalde, gogoratu behar da, aldi berean, Iñakik lan egin duela BAT aldizkarian nazioarteko soziolinguistikaren berri emateko. Izan ere, hizkuntza biziberritze-prozesuetan inplikaturik dauden gainerako hizkuntza-komunitateetako ikertzaileen eta eragileen arteko sinergiak ezinbestekoak dira hizkuntza gutxituentzat. Beraz, ikerketa sustatzea, zientifikotasuna eta dibulgazioa izan dira Iñaki Martínez de Lunaren ekimenaren erdigunea, Euskal Herriko ikuspegi nazionala ardatz hartuz, eremu

ez hain euskaldunen gaineko sentiberatasuna landuz, eta nazioarteko hizkuntzen arteko
elkartasun-sareak sortuz.

ESTI AMORRORTU GOMEZ
BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIAREN ZUZENDARIA

Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) Idazkari Nagusi gisa adierazi nahi dut guztiz egokia iruditzen zaigula Eusko Ikaskuntzak ematen duen Manuel Lekuona Saria Iñaki Martínez de Luna Perez de Arribari eskaintzea, eta bat egiten dugula Arabako Foru Aldundiak aurkeztu duen hautagaitzarekin.

Beste hainbat erakundetako ordezkariak azaldu duten bezala, Iñakik euskarari eta euskalgintzari egin dion ekarpena, zabala, aberatsa eta sakona izan da, bai alor akademikoan, bai egitasmoen eta erakundeen kudeaketan, eta baita euskalgintzan eta mugimendu sozialetan.

UEUn izandako ibilbidean, aipagarria da Inguma_Euskal Komunitate Zientifikoaren datu-baseari (www.inguna.eus) berak egindako ekarpena:

Euskararen egoera eta bilakaera XXI. mendearen hasieran: aurrera begirako erronkak
Iñaki Martínez de Luna Perez de Arriba
2012 UEU arg H.A.A. (artikulua) I
Euskara, Soziolinguistika

Bezereen poztasuna jendaurreko zerbitzuekiko
Joseba Koldo Bilbao Gaubeka, Iñaki Martínez de Luna Perez
de Arriba
2004 UEU Irakasgaia
Ekonomia

Bezereen poztasuna jendaurreko zerbitzuekiko
Joseba Koldo Bilbao Gaubeka, Iñaki Martínez de Luna Perez
de Arriba
2003 UEU Irakasgaia
Ekonomia

Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera
aztertzeko erredua
Iñaki Martínez de Luna Perez de Arriba
2003 UEU, SEI Hitzaldia
Euskal Herria, Gazteak, Soziolinguistika

"Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko
gaztetxoak eta euskara" ikerketa. Emaizta eta
ondorio nagusiak
Iñaki Martínez de Luna Perez de Arriba
2002 UEU, SEI Hitzaldia
Euskara, Gazteak, Soziolinguistika

Euskal soziolinguistika. Institutua sortzen.
Sinposiuma
Iñaki Martínez de Luna, Perez de Arriba
2000 UEU Ikastaroa
Euskal Herria, Soziolinguistika

Gazteen hizkuntza-portaeren azterketa
Iñaki Martínez de Luna, Perez de Arriba
1999 UEU Hitzaldia
Gazteak, Pedagogia

Urte hauetan guztietan, bestalde, Iñakik egindako eta zuzendutako ikerketak eta hausnarketak ezinbesteko erreferentzia izan dira gure erakundearentzat.

Honengatik guztiagatik uste dugu ondo merezia duela Iñaki Martínez de Lunak Eusko Ikaskuntzaren 2023. urteko Manuel Lekuona Saria.



ueu
udako
euskal unibertsitatea
www.ueu.org

Ane Sarasua Aranberri
UEUko Idazkari Nagusia

Gasteizen, 2023ko irailaren 14an

Honako idatzian jasota geratzen denez, Gasteizko GEU Gasteiz Euskalduna elkarteko zuzendaritzak bere babesa eskaini nahi dio Arabako Foru Aldundiak Manuel Lekuona saria jasotzeko Iñaki Martinez de Lunaren izenean proposatutako hautagaitzari.

Euskaingintzako beste alor askotan bezala, GEU Elkarteko sorreran eta bilakaeran presente egon da Iñaki Martinez de Luna eta bere laguntza eta esperientzia funtsezkoak izan dira elkartearen bilakaeran. Gasteizen euskararen erabilera sustatzeko asmoarekin sortu zen asmorik gabeko elkarte honen lehendakaria izan zen 4 urtez Iñaki, eta euskaltzaleen komunitatea trinkotzen lagundu zuen.

Horrenbestez, GEU Elkarteak ordezkatzen dugun zuzendaritza kideok aitortza egin nahi diogu Iñaki Martinez de Lunari gure proiektua gauzatzen bidelagun izateagatik.

Gasteizko GEU Gasteiz Euskalduna Elkarteko zuzendaritza taldea

Gasteizen, 2023ko irailaren 7an


Honako idatzian jasota geratzen denez, Arabako Alea Komunikazio taldeko zuzendaritzak bere babesa eskaini nahi dio Arabako Foru Aldundiak Manuel Lekuona saria jasotzeko Iñaki Martínez de Lunaren izenean proposatutako hautagaitzari.

Euskalgintzako beste alor askotan bezala, ALEA proiektuaren sorrera eta bilakaeran Iñaki Martínez de Lunaren ekarpena eta laguntza funtsezkoa izan dela aitortu nahi dugu. Kazetaritza proiektu honen hastapenetan, GEU elkartearen baitan ernaldutako proiektua izaki, Iñaki Martínez de Lunak Arabako euskaldunei zuzendutako behar komunikatiboak asetzea helburu duen egitasmo hau garatu ahal izatea hauspotu zuen, GEU elkarteko Lehendakari bezala, talde dinamizatzailearen gidaritzapean, eta BERRIA zein GOIENA kazetaritza proiektuekin elkarlana bilatuz.

Arabatik eta arabarrentzat sortutako egitasmo honek, euskal komunitatea sendotu eta trinkotzeko helburua izateaz gain, euskara egunerokoan gertutik bizi ez duten herritarrei gure hizkuntzara hurbilpen bat egitea ahalbidetu du, euskararen normalizazioan urrats garrantzitsua emanaz.

Horrenbestez, ALEA ordezkatzan dugun zuzendaritza kideok aitortza egin nahi diogu Iñaki Martínez de Lunari gure proiektua gauzatzen bidelagun izateagatik.

Arabako Alea Komunikazio taldeko zuzendaritza



Ekimen askotan izan dut lankide eta inspirazio lñaki Martinez de Luna. Eta guztietan ekarpen oso mesedegarria izan da bere ikuspegi estrategikoa, sendotasun akademikoa eta ekintzarako grina. Topaguneko lehendakari nintzela Topalabe talde erreferentziazkoa bere larduia etxean abiatu zen. Aldi beretsuan, 2012 bueltan, TOKIKOM ere abiatu zen, toki komunikabideen bitartez esparru eta funtzio berriak emateko euskarari, hurbileko komunikazioa baliatuz komunitatea kohesionatzeko euskararen inguruan. Eginkizun horretan ere lñaki oso hurbileko izan genuen. Ez da kasualitatea TOKIKOMen lehen garapena eta Arabako ALEA aldizkariren sorrera bateratsu gertatu izana. Geroago Gipuzkoako Foru Aldundian Hizkuntza Berdintasuneko zuzendari izan nintzenez argi ikusi nuen euskara teknikariak garatzeko lñakik sortutako HIZNET ikastaroaren bikaintasuna eta eraginkortasuna. Eta, azkenik, Soziolinguistika Klusterraren lehendakari izan naizenez hartu dut lñakik esparru honetan egin duen ekarpen erraldoiaren kontzientzia.

Euskararen biziberritze prozesua, munduko hizkuntza gutxituek horrenbeste estimatzen dutena, aberastu egin du lñaki Martinez de Lunaren ekarpen zientifikoak eta militanteak. Eta aberasten jarraitzen du, ez baita alferrik bera une honetan Garabide (hizkuntza elkartasuna lantzeko) elkartearen lehendakaria.

MIKEL IRIZAR
TOKIMONEN LEHENDAKARI OHIA

Mintzasai

Biarritz, 2023ko irailaren 12a

GAIA: Manuel LEKUONA saria Iñaki MARTINEZ de LUNA jaunari

2011az geroztik, Mintzalasai elkarteak euskararen biziberritzearen alde lan egiten du Lapurdiko hiri-eremuan zentratuz bere jarduna. Urte oro izen bereko festibala antolatzeaz gain, sentiberatze eta aktibatze tresnak garatzen ditu bestalde.

Bere ibilbidean, elkartekideek Euskal Herri guziko jendearekin harremana izan du eta karia horretara behin baino gehiagotan Iñaki MARTINEZ de LUNA jaunarekin lan egiteko aukera izan dugu. 2015 eta 2018an, diskurtsoen berritzeari buruzko hausnarketa saio batzuk animatzera etorri zen Baionara. Bertan ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragile guziekin batera, bere ikerketa eta gogoeten berri partekatu zigun. Bere entzute gaitasuna eta hurbilketa pedagogikoa eskertu genituen denek.

Euskararen Erakunde Publikoa egituratzen hasi zelarik ere, Iñakik aholku batzordean parte hartu zuen. Hor ere, bere ekarpena agerikoa izan zen, lantzen ari zen hizkuntza politikoari ezinbesteko kanpoko begirada ekarriz.

Azkenik, Garabideko lehendakari gisa ere izan genuen bi egituren arteko elkarlan puntuala eramateko aukera. Beltzean mintzo, Mai da Bai, Argia iluntasunean dokumentalak proiektatu izan genituen gure festibalean. Horrez gain, 3 urtez aditu ikastaroko parte hartzaileak ere hurbildu zitzaizkigun eta beti hor gaindi ibiltzen zen Iñaki.

Gaur egun, badakigu Ipar Euskal Herri mailan sortzen den Plazara kooperatibako lagunek Iñaki MARTINEZ de LUNA bidelagun dutela, beste hainbat egitasmok bezala.

Pertsona langilea, diskretua, kontsentsuala eta pedagogoa da. Araban errotua, baina Euskal Herriko txoko desberdinei interesatzeko gaitasun handia duena. Ahoa ideki aitzin belarrria luzatzen dituen horietakoa da eta Mintzalasai elkarteak asko ikasi izan du bere ondoan.

Arrazoi guzi horientzat, eta aipatu ez ditugunentzat ere segur aski, osoki pertinentea iruditzen zaigu tamaina hortako ikerlari, ekintzaile eta bidelagun hori sariztatzea.

Ortzi JAUREGUY.

Ko-lehendakaria
Co-président

Oihana ZAMPONI-GALE

Ko-lehendakaria
Co-président

Uhaina AZPEITIA

Diruzaina
Trésorière




Maison des associations.
Rue Darritchon karrika.
64200 BIARRITZ

MINTZALASAI

SIRET 798 274 551 00018
APE 9499Z
LICENCE SPECTACLE : 3-1090846

06 77 82 20 20
info@mintzalasai.eus
www.mintzalasai.eus



Iñaki Martínez de Luna eta Jakin

Jakin aldizkarian eta egitasmoan hizkuntzari berariazko lekua eta garrantzia ematen zaio, bereziki hizkuntzaren estatusari eta, horrenbestez, soziolinguistikari, eta, horri lotuta hizkuntza politikari. Horregatik, beti izan du tarte, gaur arte, euskararen auziak Jakinen zenbaki guztietan, 1956an jaio zenetik, jaio ere, hain zuzen, besteak beste, euskararen batasuna eta euskararen normalizazioa bultzatzeko jaio baitzen, hau da, euskara kultur bideetan jartzeko.

Soziolinguistikak leku propioa izan du, beraz, zehazki, 'Egunen gurpilen' atalean. Atal horretatik aditu mordoa igaro dira. Tartean, Iñaki Martínez de Luna. Bestela ezin izan, soziolinguistikaz jarduten duen edonork daki Martínez de Lunaren ekarpena kontutan hartu beharrekoa dela. Eta horrela egin zuen Jakinek eta horrela egin zuen Martínez de Lunak: 2001eko urtarrilean hasi eta 2003ko urrian amaituta, hiru urtetan zehar, zenbakiro idatzi zuen Jakinen eta bere ekarpena egin. Bere Jakineko azken artikulua honela amaitu zuen: "Dударik gabe, gure hizkuntzaren taupadak sendoak lirateke, gizartea, herrigintzako eragileak eta erakunde publikoak, dinamika berean, elkarlanerako prest agertuko balira".

Badu merezimendurik Iñaki Martínez de Lunak Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso dezan, beraz.

Donostian, 2023ko irailean

JAKIN

Iñaki Martínez de Lunaren urratsei jarraiki

Arabako lur hauetan euskararen biziberritzean arduratuta, engaiatuta eta lanpetuta dabilen orok ezagun ditu Iñaki Martínez de Lunaren lanak eta hausnarketak; alde batetik, beharrezkoa zaigulako gure ingurune soziolinguistikoa ondo ezagutzea, egoera eraldatu nahi badugu, behinik behin; eta horretan Iñakiren ekarpen soziolinguistikoak sarri aztertu eta ikertu behar izan ditugu. Beste alde batetik, Iñakiren ekarpena ez denez arlo akademikor edo teorikoa mugatu, bada, hainbat ekimen, elkargune edo proiektutan topo egin dugulako.

Nire aldetik, 2009. urtea izango zen seguruenik, Iñaki saltsa ezberdinetan ezagutu nuen urtea. Lehenik, eratu berri zen **Euskararen Arabako Euskararen Aholku Batzordean**, hain beharrezkoa zen Plan Estrategikoari ahal genuen ekarpenik zentzuzkoenak egiten; eta **GEU elkartearen** bileretan ondoren.

Arabako Euskararen biziberritzerako lanetan hain garrantzitsuak diren bi foro horietan hasi nintzen ezagutzen Iñakiren hausnarketak eta lanak, eta bilera horietan Iñaki bera ere ezagutzeko aukera ireki zitzaidan. Orduan topo egin eta tratatu, beti abegikor, beti eskuzabal eta beti kontsentsu zale.

Aurrerago, **Oihaneder Euskararen Etxea** martxan jarri genuen (2014), eta Gasteiz Antzokiaren egitasmoa lantzen buru belarri sartu ginen. Bertan izandako zortzi urteetan Iñaki bidaide eta proiektu kide ere izan dugu hainbat egitasmo aurrera ateratzeko: izan **Hitz Adina Mintzo** proiektua (Hizkuntz gutxituak ezagutzeko ikastaroa), edo Euskaltzaindiaren JAGON saileko Sustapen Batzordeak antolatutako *Araba, euskaraz bidea egiten* jardunaldia.

Geroztik, hemen eta han, Iñakiren itzalak beti eman digu aterpe jakingarri, eta gainera hausnarketa interesgarrien magal izan da. Horren lekuko, Euskararen Biziberritzea Araban egitasmoa martxan jartzeko Iñakik egindako proposamena, eta bertan parte hartzeko egin digun gonbidapena.

Beraz, Gasteizen eta Araban euskararen biziberritze lanetan gabiltzan talde eta egitasmo guztiak izan gara, modu batean edo bestean, Iñakiren lanaren eta laguntzaren onuradun.

Esker ona, baino ez.

Gogotsu eta adi jarraituko ditugu Iñakiren urratsak.

Iñaki Lazkano

(Lazarraga Kultur Elkateko kide, Arabako Euskara Batzordeko partaide, GEU elkarteko bazkide eta Euskararen Biziberritzea Araban egitasmoa Talde Eragileko kide).

Nire ibilbide profesionala atzerrian hasi nuen eta Euskal Herrira itzultzean, Iñaki Martinez de Luna izan zen esku zabalik hartu ninduen eta bidea erakutsi zidana. Bidea baino gehiago, bideak erakutsi zizkidan eta 10 urte hauetan zenbatezinak dira elkarrekin izandako elkarrizketak, partekatutako gogoetak eta batera parte-hartu dugun proiektuak. Iñaki euskal soziolinguistikaren itsasargi bat izan dela esan genezake, balio izugarrikoak dira arlo ezberdinetan euskararen eta hizkuntzen biziberritzeari egin dizkion ekarpenak eta ohore handia da urte hauetan berarengandik hain gertu egon izana eta ahal izan dudana guztia ikasi izana.

Beñat Garaio
HIGA programako arduraduna

IÑAKI MARTÍNEZ DE LUNA PÉREZ DE ARRIBA

CURRICULUM HAUTATUA*

- Gasteiz, 1950-10-22.
- Ezkondua eta bi seme.

1 FORMAIZIOA

- Maestría industrial (1969), Jesús Obrero Lanbide Eskolan (Gasteiz).
- Soziologian lizentziaduna (1981) , Deustuko Unibertsitatean.
- Soziologian doktorea (1990), Deustuko Unibertsitatean.

2 IBILBIDE PROFESIONALA

- 1969tik 1976ra bitartean, teknikari zenbait enpresetan: Forjas Larrañaga (Lazkao, Gipuzkoa), Michelin (Gasteiz), Terrazos Zárate (Legutio, Araba), Duratón (Lemoa, Bizkaia).
- 1981tik 1982ra, euskara irakaslea AEKn.
- 1982tik 1986ra Eusko Jaurlaritzako Estatistika Zerbitzuko (gerora EUSTAT) teknikaria.
- 1986tik 2015era, Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteko arduraduna.

3 UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA

- 1989tik 2015era UPV-EHUko irakasle atxikia, Leioa eta Gasteizko campus-etan.
- Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioaren eta UPV-EHUren Hizkuntza Plangintza (Hiznet) gradu-ondokoaren sortzailea, zuzendaria eta irakaslea, 2001-2015 bitartean.

* Curriculum honetan biltzen dira Iñaki Martinez de Lunaren ibilbide, partaidetza, argitalpen eta hitzaldi nagusiak, baina argitu beharrekoa da aukeraketa eta laburpen bat dela.

- Eusko Ikaskuntzako Asmoz Fundazioaren LINGUANET Enpresetako Hizkuntza Plangintza ikastaroko sortzaile eta zuzendaria, 2004-2008 bitartean.
- 2018, 2019, 2020, 2022 eta 2023 urteetan irakasle, garapen bidean dauden Hegoko hizkuntza komunitate gutxituentzako Garabidek sortutako Ikastaldia, HIBIL eta Aditu ikastaroetan.

4 SOZIOLINGUISTIKA AHOEKULARITZA

- Arabako Foru Aldundiko Euskara Aholku batzordeko kidea (2008-).
- Euskararen Erakunde Publiko/ Office Publique pour la Langue Basque-ko aholkulari-batzordekidea (2012-).
- EAEko Euskara Aholku Batzordeko kidea (2013-).
- Euskara 21 Batzorde-atal bereziko zuzendaria (2013-2017) eta ESEP Berritzeko Batzorde-atal bereziko zuzendaria (2022-).

5 HERRIGINTZA, EUSKALGINTZA, KULTURGINTZA

- Eusko Ikaskuntzako kidea (2007-), 2007-2013 bitartean Auñamendi Eusko Entziklopediako zuzendaria.
- Eusko Ikaskuntzaren mendeurreneko XVIII. Gero Elkar-Ekin Kongresuan e5 ekimenean, talde eragileko kidea (2018).
- Soziolinguistika Klusterreko kide sortzailea eta lehenengo lehendakaria (2000-2004).
- Bat Soziolinguistika aldizkariko zuzendaria (2012-2022).
- INGURUAK soziologia aldizkariko argitalpen batzordeko kidea (2001-2010).
- Gasteizko GEU euskara elkarteko kide eta 2013-2015 bitarteko lehendakaria.
- Topagunea Euskara Elkarleen Federazioak gidatutako Topalabea taldeko kide sorreratik (2015-).
- Euskaltzaindiko euskaltzain urgazlea (2015-) eta Sustapen Batzordeko kidea (2017-).
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua eta Donostia 2016 Fundazioaren Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa osatzeko Batzorde Zientifikoko kidea (2016).

- Garabide elkarteko Kontseilu Nagusiko kidea (2017-) eta lehendakaria (2019-).
- EHU-UPVko Gizarte Kontseiluko kidea (2018-), Arabako Batzar Nagusien izenean.
- Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluko kidea (2021-), EHU-UPVko Gizarte Kontseiluaren izenean.

6 IKERKUNTZA

- *Tiempo libre y consumo de drogas en Álava* (ikertzailea) (1984). D.A.K. (Eusko Jaurlaritzaren Osasun saila).
- *El euskara en la configuración de la identidad social en el País Vasco*. (1994). UPV/EHU - Eusko Jaurlaritza.
- *Gizarte sareen metogologiaren moldaketa saio bat Euskal Herriko hizkuntza soziologiarako* (1994-1995), UPV/EHU.
- *Gazte donostiarren hizkuntzekiko harremanak*. (1995). Ayuntamiento Donostia-San Sebastián Udala.
- *Etorkizuna Aurreikusten: Gaztetxoak eta euskara* (ikertzaile / zuzendarikidea) (1998). Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Eusko Jaurlaritza eta Akitania-Euskadi Fondoa. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iparraldeko Euskal Kultur Erakundea eta Euskal Herriko Unibertsitatea
- *Las redes sociales de los jóvenes euskaldunes: de la competencia lingüística al uso del euskera*. (1998). Hizkuntza Politikarako Sailordetza (Eusko Jaurlaritza).
- *Bergarako Azterketa Soziolinguistikoa*. (1999). Bergarako Udala.
- *Arrasateko bizindar etnolinguistikoaren azterketa konparatua*. (2000). Arrasateko Udala.
- *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran / Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI / Identité et culture basques au début du XXIème siècle*. (2003-2006). (Zuzendaria) Eusko Ikaskuntza. Finantziatzaileak: Euskadi-Akitania fondoa/ Eusko Jaurlaritza/ Institut Culturel Basque.
- *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia* (2013, Eusko Jaurlaritza).
- *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)*. (2015). (Zuzendaria) Eusko Jaurlaritza, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza.
- *EAS Euskararen Adierazle Sistema-Sistema de Indicadores del Euskera- Système d'Indicateurs de la Langue Basque*. (2013-2017). (Zuzendaria)

Eusko Jaurlaritza (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) / Nafarroako Gobernua (Euskarabidea) / Office Public de la Langue Basque-Euskararen Erakunde Publikoa / Europar Batasuna (Interreg-POCTEFA).

- *ARRUE ikerlerroa* (2004-2022). (Zuzendaria) Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.
- *Euskararen Biziberritza Araban (EBA)*, (2023-), (koordinatzailea) Euskaltzaindia, Jagon Saila.

7 ARTIKULU ETA ARGITALPENAK

- Mercado de trabajo y fuerzas sociales en Euskal Herri Sur. (1984). *PAPERS* 1 (2): 125-159.
- Euskadi y la necesidad de repensar la sociedad bilingüe. *Inguruak* 10: 99-114.
- Hizkuntzekiko motibazioen ekarpenak inguruneak ezarritako baldintzen aurrean (1996). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 18: 39-52.
- Gizarte sareak eta hizkuntzaren erabilera: euskarari eta gaztelaniari egokitutako hurbilketa (1998). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 26: 59-84.
- Gazte donostiarren hizkuntzarekiko harremanak (1998). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 27: 51-81.
- Euskararekiko motibazio sinbolikoak (1998). In Intxausti, J. (ed.) *Euskararen aldeko motibazioak. Donostiako Udako XIII. Ikastaroak* (1994), [Bilbao]: UPV-EHU, 69-136.
- Gizarte sareen metodologia hizkuntza erabilerara egokitzeko saioa (1999). *Inguruak* 23: 267-286.
- *Etorkizuna aurreikusten 99. Euskal herriko gaztetxoak eta euskara*. (2000). UPV/EHU ISBN: 84-607-1693-7; Universidad de Navarra. ISBN: 978-84-607-1693-8.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2001). *Jakin* 122 (2001-1): 141-145.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2001). *Jakin* 125 (2001-3): 126-131.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2001). *Jakin* 136 (2001-4): 106-11.
- Hizkuntza plangintza unibertsitate-ikastaroa (2001). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 38: 89-95.
- Euskal herriko gaztetxoek hizkuntz egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena (2001). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 40: 47-68.

- *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran / Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI / Identité et culture basques au début du XXIème siècle* (2006). Donostia. Eusko Ikaskuntza.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 128 (2003-1): 132-137.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 129 (2003-2): 106-111.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 131 (2003-3): 128-133.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2002). *Jakin* 132 (2003-4): 104-109.
- Euskararen kale erabilera Araban (2002). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 43: 65-74.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 134 (2003-1): 130-135.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 135 (2003-2): 155-160.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 136 (2003-3): 107-112.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 137 (2003-4): 106-111.
- Egunen gurpilean: soziolinguistika (2003). *Jakin* 138 (2003-5): 107-109.
- Euskalduntze-alfabetatzearen datuak (1985-2003). Iritzi bilketa: hurbilketa soziolinguistikoa. *Jakin* 137 (2003-4): 31-68.
- Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak (2004). *Egokitasuna hizkuntzaren erabileran*. Mendebaldea Alkartea. Bilbao: 11-38.
- Introduction: presenting the basque case (2005). *International journal of the sociology of language* 1/174: 1-8.
- The case of Basque: From the present towards the future (2005). *International journal of the sociology of language* 174: 1-125.
- Final reflections: From the present towards the future (2005). *International journal of the sociology of language* 174: 85-105.
- Euskararen egungo erronkak EAEn: mintegiaren izaera eta emaitza nagusiak (2005). *Hermes* 16: 42-46.
- Soziologia Lizentziaturan antolatu zen Hizkuntzaren Soziologiaren Ibilbidearen berri (2006). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 61: 32-41
- HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa (2006). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 61: 85-91
- Euskararen kale-erabilera Araban: 1989-2006 (2007). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 64: 61-71.
- Nortasuna, kultura eta hizkuntza XXI. mendeko Euskal Herrian (2007). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 65: 49-61.
- Hizkuntzen ekologia (2007). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 65: 105-109.

- Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2007). *Hermes*. Bilbao.
- Measuring Student Language Use in the School Context (2008). *Language, culture and curriculum* 21 (1): 59-68.
- Encuestas de opinión: de la teoría a la práctica (2008). *Metodología de encuestas* 1/10: 7-25.
- Zelako euskaldunak, halako kopuruak..., edo Soziologiaren erantzuna (2009)., in K. Alkorta eta E. Barrutia (arg.). *Transmisioa eta erabilera*. Mendebalde Euskal Kultur Alkartea, Bilbao, 11-42.
- Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharizantara (2010). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 76: 53-68.
- *Gazteen kultura: beste kode batzuk, beste ohitura batzuk* (2010). Kultura 08-09. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza: 25-45.
- Mikel Zalbideren teoriatik tiraka. Diglosiaren purgatorioaz izeneko ponentziari emandako erantzuna (2011). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 79-80 (2011) (2-3): 207-213.
- Success-Failure Continuum of Euskara in the Basque Country (2011). *Handbook of Language and Ethnic Identity*, Vol. 2: 323-335.
- Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena (2011). *Euskera* 56 (3): 589-652
- Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara: egungo egoera eta etorkizuneko aukerak (2012). *XVII Congreso de Estudios Vascos: Gizarte aurrerapen iraunkorrerako berrikuntza* (2009). Donostia. Eusko Ikaskuntza: 1491-1508.
- Análisis contextual de la revitalización del euskera en el ámbito familiar (2012). *Caplletra* 53 (Tardor 2012): 1-32.
- Hizkuntzen kale-erabileraren VI. Neurketa, 2011. Emaitza nagusiak (2012). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 84, 2012 (3): 31-58.
- Egoeraren gaineko gogoetak eta norabide proposamenak (2012). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 84, 2012 (3): 121-137.
- Euskararen egoera eta bilakaera XXI. mendearen hasieran: aurrera begirako erronkak (2012). *Euskal Estatuari Bidea Zabaltzen. Herriartasuna eta Kultura*. Ipar Hegoa Fundazioa / Udako Euskal Unibertsitatea: 151-168.
- *Euskara EAEn: gaitasuna, erabilera eta iritzia* (2013). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Euskara EAeko Hezkuntza Sistemari: irakurketa soziologikoa (2013). *Ikasleak Hiztun. 2011ko ARRUE proiektua*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. 121-134.

- EAEko ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera aztertzen: 2011ko Arrueko azterketen aurretik eta ondoren (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 86, 2013 (1): 111-124.
- Euskarak duen Framing Berri baten premia asetzeko proposamena (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 86, 2013 (1): 13-83.
- Eskerrona (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 86, 2013 (1): 149-157.
- Azken urteetako euskal ikerkuntza soziolinguistikoaren azterketa deskribatzailea (2013). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88: 13-47.
- Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa (2014). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 91, 2014 (2): 11-41.
- The use of Basque in model D schools in the Basque Autonomous Community, *European Journal of Applied Linguistics* vol.2, nº.2 (2014): 254-286.
- The Basque language: From an unknown past to a bright future (2015). *Europäisches Journal für Minderheitenfragen EJM* 8 (2015) 3/4: 225-254.
- La sociolingüística del euskera: del movimiento social a la práctica académica (2015). *Treballs de Sociolingüística Catalana* 25: 231-249.
- The contemporary flourishing of the Basque Language (2015). *Linguistic Minorities in Europe* Online, 2015. De Gruyter Mouton: 225-250.
- *Arabako hizkuntzak eta hiztunak mundu eleanitzean.* (2015). Vitoria-Gasteiz. Arabako Foru Aldundia: 75-84.
- Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri (bizikidetzarena, identitatearena, berdintasunarena, aniztasunarena, erantzukizunarena, justiziarena eta errespetuarena). (2016). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 98, 2016 (1): 39-56.
- Euskararen transmisioa eta gaitasuna, eta aurrera begirako erronkak (2016). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 99, 2016 (2): 21-79.
- *Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD) / Análisis de los Discursos Básicos Sobre el Euskera* (2016). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Akademia eta hizkuntza-politika (2016). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 101, 2016 (4): 53-67.
- The Basque language: From an unknown past to a bright future (2016). *Europäisches Journal für Minderheitenfragen EJM* 3-4, 2016: 225-254
- EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan (2011-2015). *ARRUE proiektua* (2018). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Hizkuntza-estrategia birpentsatuz (2018). *Hermes* 60: 68-70.

- Euskararen biziberritzea, eleaniztasunaren garaiko erronka (2018). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 106, 2018 (1): 47-64.
- Euskalgintzaren nondik norakoak: gogoeta bat (2019). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 112 (3): 11-34.
- Lankidetzaren ikuspegi holistikoa (2020). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 114, 2020 (1): 11-23.
- EAEko Ikasleen Euskararen Erabilera Eskola-Giroan: 2011-2017. *Arrue Proiektua* (2020). Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Hizkuntza-mudantza EAEko ikasleengan (2020). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 114, 2020 (1): 115-156.
- The contemporary flourishing of the Basque Language (2020). *Linguistic Minorities in Europe Online*, 2020. De Gruyter Mouton.
- Zer erakusten du adinak kale-erabileran? (2022). *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 125 (4): 89-113.
- Language Proficiency and Language Use in Basque as a First or Second Language (2023). *The minority language as a second language: challenges and achievements*. Routledge: Chapter 7 (2023an argitaratzeko bidean).

8 KONGRESUAK, JARDUNALDIAK ETA HITZALDIAK

- Mercado de trabajo y fuerzas sociales en Euskal Herria Sur (Sitges; 1983/09/28-3) Jornades d'Estudi Catalunya-Euskadi: societats i política
- Tiempo libre y consumo de drogas en Álava (Donostia; 1983/11/10-12) XI JORNADAS DE SOCIDROGALCOHOL
- Gemeinschaft y participación política en el País Vasco (Valvanera; 1989/10/11-14) Simposium sobre la psicología social del nacionalismo
- Participación Política en el País Vasco (Santiago de Compostela; 1990/09/19-21) Kongresua: III Congreso Nacional de Psicología Social
- La Participación Política en el País Vasco (Bilbao, 1990/10/04-05) Seminario: Investigaciones Políticas III
- La política en Euskadi (Vitoria-Gasteiz; 1992/04/09-11) II. Euskal Soziologi Kongresua-II Congreso Vasco de Sociología
- La utilidad de la encuesta en previsión de resultados electorales: limitaciones y opciones para el análisis de la información (Madrid, 1992/10/15-16) Seminario: Investigaciones Políticas V (AEDEMO-Asociación Española de Estudios de Mercado, Marketing y Opinión)

- Dificultades en la previsión de resultados electorales en situaciones de alteración de la oferta electoral (Madrid, 1993/10/07-08) Seminario: Investigaciones Políticas VI (AEDEMO-Asociación Española de Estudios de Mercado, Marketing y Opinión).
- Motibazio sinbolikoa euskararen kasuan (I, II, III, IV). Hitzaldi sorta: *EHUko Udako XIII. Ikastaroak* (1994).
- Euskara biziberritzeko saioak (1995). Hitzaldia: *EHUko XIV Uda Ikastaroak*.
- Intento de adaptación del análisis de redes sociales a la sociología de la lengua en el País Vasco (Granada, 1995/09/28-30). *V Congreso Español de Sociología*.
- Euskararen erabilera eta gizarte sareak. Sareen garrantzi berezia ingurune elebidunetan (Bilbao; 1998/02/26-28). *IV Congreso Vasco de Sociología*.
- Necesidades metodológicas y técnicas de un equipo de estudios sociológicos en la Administración Pública (Bilbao; 1998/02/26-28) *IV Congreso Vasco de Sociología*
- Influencia de los movimientos sociales en la pacificación de Euskadi (Donostia; 1999/06/20-23) *Conference of the International Association for Conflict Management*.
- Gazteen hizkuntza-portaeren azterketa (1999). Hitzaldia: *UEU*.
- Etorkizuna Aurreikusten 1999. Gazteak eta Euskara Euskal Herrian (Bilbao; 1999/12/01-03) *VII Conferencia Internacional de Lenguas Minoritarias*.
- Gizarte sareak eta hizkuntz espazioa euskal autonomia erkidegoan: gazte elebidunak euskararen gaitasun eta erabileraren artean (Bilbao; 1999/12/15-17) *Eremu Urriko Hizkuntzei Buruzko VII Nazioarteko Biltzara / VII Conferencia Internacional de Lenguas Minoritarias*.
- *Euskal soziolinguistika. Institutua sortzen. Sinposiuma* (zuzendaria). Vitoria-Gasteiz (2000).
- Ezagutza eta erabileraren arteko saltoa (Bilbao, 2001/03/01-3). *V Congreso Vasco de Sociología*.
- Arrasateko bizindar etnolinguistikoaren azterketa konparatua (Bilbao; 2001/03/01-03) *V Congreso Vasco de Sociología*
- Propuesta de un modelo para el análisis de la situación sociolingüística de los adolescentes vascos (Salamanca; 2001/09/23-25) Kongresua: *VII Congreso Español de Sociología*

- Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak (Donostia; 2001/11/10-12) XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal Zientzia eta kultura, eta sare telematikoak.
- Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara (Donostia; 2002/02/19-22) *IX Jardunaldi Pedagogikoak: Euskararen erabilera*.
- Euskal Herriko gaztetxoen hizkuntza egoera aztertzeke eredu (2003). SEI eta UEU (2003). (Hitzaldia) Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen eta Udako Euskal Unibertsitatea.
- Euskararen erabilera egokirako gizarte baldintzak (Bilbao; 2004/05/07) *Egokitasuna Hizkuntzaren erabileran. VIII. Jardunaldiak*. Mendebalde Kultura Alkartea.
- Implicaciones sociopolíticas de los Concejos (Vitoria-Gasteiz; 2005/03/03) *La Economía de los Concejos Alaveses*.
- Encuestas de Opinión: de la teoría a la práctica (2006) *IV Congreso de Metodología de Encuestas*. Universidad Pública de Navarra (Iruñea, 2006/09/20-22).
- La diversidad lingüística y el símil ecológico (Iruñea; 2006/11/19-22) Ciclo de conferencias del Ateneo Navarro-Nafar Ateneoa.
- Iritzi-inkestak: teoriatik praktikara (Bilbao; 2007/02/15-16) Kongresua: *VII Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresua*.
- Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI (Bilbao, 2007/02/15-16) VII. *Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresua: Transizioak*.
- Jolaslekuko ikaslearen erabileraren eta talde-erabileraren azterketa (Bilbao; 2007/02/15-16) VII. *Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresua: Transizioak*.
- Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI (2007). (Hitzaldia). *IX Congreso Español de Sociología 2007* (Barcelona, 2007-09-13/15).
- Vitoria-Gasteiz 1981-2006: ¿monolingüismo, diglosia o bilingüismo? (Alicante; 2007/03/09-10) *Llengua, Educació i Revernacularització: El Valencià a la Ciutat d' Alacant*.
- Gasteiz 1981-2006: Zer-nolako egoera soziolinguistikoa? (2008). (Hitzaldia). Lakua. Gasteiz.
- Hizkuntza gutxituak mundu globalizatuan. Eta euskara zer? (2008) (Hitzaldia): *AEDren 25. Urteurrena* (Arrasate, 2008).
- ARRUE ikerketa-lana: Nolakoa da haurren eta gazteen hizkuntza-erabilera eskolan? (Donostia; 2009/02/20) *II. Soziolinguistika Jardunaldia*.

- Zelako euskaldunak, halako kopurua..., edo Soziologiaren erantzuna (Bilbao; 2009/05/08) *Transmisioa eta erabilera jardunaldia*. Mendebalde Kultura Alkartea.
- Hizkuntzen ekologiaren diskurtsoa eta euskara, egungo egoera eta etorkizuneko aukerak Soziologiaren ikusmiratik. (Vitoria-Gasteiz; 2009/11/18-20) Kongresua: XVII Congreso de Estudios Vascos: Innovación para el progreso social sostenible: 1491-1508.
- Euskarazko jarretatik erabilerara (Donostia; 2010/02/26) III. Soziolinguistika Jardunaldia.
- Ikasleen hizkuntza-erabilera ikertzen eskola giroan (Vitoria-Gasteiz; 2010/05/10-12) Herrialde Katalalanak-Euskal Herria: Elkarbidean Nazioarteko Kongresua.
- Eta heldu den urtean hauteskundeak berriro! (2010). (Hitzaldia). (Bergara, 2010-11-18).
- La socialización del euskera a comienzos del s. XXI: dinámicas y representaciones sociales (2011). (Hitzaldia) *Día Internacional de las Lenguas Maternas*. (Universidad de Santa Bárbara, USA, 2011-02-23).
- Hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren onurak eta zailtasunak (2011). (Mahingurua). *XXX Cursos de Verano / XXX. Uda Ikastaroak XXIII Cursos europeos / XXIII. Europar Ikastaroak* (Donostia, 2011-07-08).
- Euskara indarberritzeko ibilbidea, erronkak eta aukerak (2011). *Ulibarri Programa, Eskola Hiztun Bila, XV. Jardunaldia* (Gasteizko Berritzegunea, 2011, Azaroaren 14an eta 15ean).
- Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako (2011) *XVI. Jagon Jardunaldiak*. Euskaltzaindia. (Vitoria-Gasteiz; 2011/11/11)
- Euskaraz-bizi-nahi-dut-baina... (2012) (Hitzaldia). Bergarako Udala (Bergara, 2012ko martxoa).
- V. Inkesta Soziolinguistikoa, Arabako Emaitzak (2012). (Hitzaldia) *Arabako ideia laborategia: Praktika Onen Aurkezpena*. Arabako Foru Aldundia (Espejo, Araba, 2012-05-26).
- GASTEIZ VS. EKOLOGUEA (Vitoria-Gasteiz; 2012/06/14) Hizkuntza ekologia eta iraunkortasuna - Ecología y sostenibilidad lingüística.
- Euskara EAEko Hezkuntza Sistemari: Irakurketa soziologikoa (Donostia; 2013/01/31) Euskal Soziolinguistika VI. Jardunaldia.
- Aniztasunaren kudeaketa katalan eta euskal gizarteetan (Donostia; 2013/03/14-15) Kongresua: 1. Jardunaldia: Aniztasunaren Kudeaketa: Paisos Catalans eta Euskal Herria.
- La juventud alavesa ya sabe euskera, pero ¿lo usa? (2013). (Hitzaldia) *Badu, bada zikloa*. (Gasteiz, 2013-12-17).

- La sociolingüística del euskera: del movimiento social a la práctica académica (Barcelona, 2013/12/11-12) *II jornades; la recerca sociolingüística en el àmbit de la llengua catalana*.
- *Ikastola bakarrik ez da nahikoa gure seme-alabak euskalduntzeko* (2014). (Hitzaldia) Armentia Ikastola (Gasteiz, 2014-03-11).
- Orain arteko plangintzen balorazio soziolinguistikoa (2014) *UDALTOP VII. Soziolinguistika Jardunaldia* (Lasarte-Oria; 2014/04/09-10).
- Hizkuntz Politikak Euskal Herrian (2014). (Hitzaldia, online) *Mintzanet. Doktorandenkolloquium* (Etxeepare Institutoa, Lectorado de euskara), (Leipzig, Alemania, 2014-05-21).
- El control de campo en entrevistas telefónicas y presenciales (2014) (Hitzaldia) *VI encuentro: La opinión pública en el Estado Autonomico*. Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) (Segovia, 2014-06-10).
- Nola garatu diskurtsoa mintzapraktika egitasmoetako partaideen artean? (2014). *Gaur, euskara praktikatu. Bihar, euskaraz bizi. Jardunaldia*. AEK (Bilbo, 2014-11-28).
- Arabako hiztunak XXI. mendeko eleaniztasunean (Gasteiz; 2014/12/17-18). (Hitzaldia) *Jardunaldiak arabako hizkuntzak eta hiztunak mundu eleanitzean*. Arabako Foru Aldundia.
- Nola euskahaldundu erdaldunak? (2015). (Mahaingurua) *Martin Ugalde Foroa* (Andoain, 2015).
- Diskurtso multzo koherentea XXI. mendeko giltzarri. (2016). (Hitzaldia) *Topaldia 2016: Euskaltzaleen aktibazioa: autoeraketa, ahalduntzea eta performatibitatea*. Durango.
- Diskursoak (2016). *Iparraldeko euskara teknikarientzako tailerra*. Baiona.
- Euskararekiko kontzientziazioa eta gizarte erantzukizuna akademiaren ikuspegitik begiratuz. Unibertsitatearen eta gizarte eragileen elkarlana kultura-aldaketa prozesuan. (2016). (Zuzendaria) *EHUko Uda Ikastaroak*. (2016-07-05, Bizkaia Artoa, Bilbo).
- El plurilingüismo en Álava / Eleaniztasuna Araban. (Gasteiz, 20-03-2017). (Hitzaldia) *Zeledones de Oro / Urrezko Zeldoiak*.
- SORALUZE: azken hamarkadetako bilakaera soziolinguistikoa eta gaur egungo erronkak (2018-02-15). (Tailerra). Antolatzailea: Soraluezko Udala.
- OINARRIZKO SOZIOLINGUISTIKA IKASTAROAREN ONDORENAK (2018-02-03) AEK – Didaktika Topaketak (Donostia).

- *Garabide: Hizkuntza lankidetzeta eta bere oinarri komunitarioa* (2020-11-24). (Hitzaldia) EHUko Arabako Campusekok Lan Harreman eta Gizarte Lankidetzeta Fakultatea.
- Solasaldia: Miren Dobaran Urrutia (Hizkuntza Politikarako sailburuordea) eta Iñaki Martinez de Luna (soziolinguista) (2020-09-14). *Euskarazko komunikazioa 2020ko hamarkadan. EHUko Udako Ikastaroak* (Donostia, 2020-09-14).
- Eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa (2020). *Euskal Soziolinguistika Jardunaldia*. Eskoriatza, 2020/10/28.
- Berrindartu eta Jauzi. (2021). (Hitzaldia) Lazarraga Elkarte, Oihaneder-Topalabe (Gasteiz, 2021-03-23).
- Euskararen lekua, gizartean zein osasun sisteman: *Hausnarketa saioa* (2021). Osakidetza, Gasteizko ESI. (Gasteiz, 2021-12-03).
- Gure gizartearen erantzuna ustekabeko pandemia baten aurrean (2022) (Solasaldia), Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademia. (Donostia, 2022-05-31).
- 2040ko Gasteizko euskaldunak. Irudikatzen? (2022). (Hitzaldia) *Eragiteko jansten zikloa*. (Gasteiz, 2022-04-26).
- Hizkuntza gutxituak globalizazio testuinguruan: zergatik? zertarako? / Las lenguas minorizadas en el contexto de la globalización: ¿por qué? ¿para qué? (2023). (Zuzendaria). *EHUko Udako Ikastaroak* (Donostia, 2023-07-17/18).
- Actitudes de la población de origen extranjero ante el euskera: resultados de una investigación (2023), (Hitzaldia) Ikastaroa: *Euskara eta immigrazioa. Ikerketa baten harira... / Euskera e inmigración. Una investigación*. EHUko Udako Ikastaroak (Donostia, 2023-09-14).